

## Antxiñako fotografixia

# Markesaren etxia Kale Zaharrian

**E**zta, ba, hainbeste denpora inguru honetako etxiak bota eta barrixak jaso zirala. Berrogei urte pasatxo, baiña bapatian ezta samurra igartia Oñatiko zein lekutakua dan argazki zahar hau. Eskuma aldeko lehenengo etxia, miradore luzia dakona, **Nemesia Murgiondorena** zan. Zenbat egonaldi egin eben miradore horretan Luisa neskamiarekin batera! Nemesiak Koixkarren eukan jatorrixa eta 1926xa ezkerohan dagueen Jesusen Bihotzaren ermittia egitten be lagundu ei eben bere osaba zan **Felix Murgiondo** abadiarekin eta Aurreko Mendiko hainbat baserri-ttarrekin batera. Hurrengo eraikin zabala, barriz, Markesaren etxia moduan ezagutu geben, **Marqués de Socorro** titulua eukan **Jose Maria Solanorena** zalako.

Solano etzan oñatiarra, Lekeitiokua baiño. Bizkaiko herri haretako familixa aberatsenetako batian jaixua zan eta, Oñatirekin aparteko zerikusirik eduki ez arren, asko gustaitten ei xakon gure herrixa. Horregatik, hemen etxe eder bat egittia pentsau eben, bertan udia pasaitteko. Horretarako, Kale Zaharreko etxe zahar batzuk bota eta beria jaso eben XIX. gizaldixaren akabera aldera. Gazte samarra zan artian eta aittak, orduko markesak, baserri mordoskia erosi otsan Oñatin, semiak ondare edo patrimonixo itxurosua izan egixen: **Jurgiña Olabarrietan**, **Joxiueña Larrañan**, **Jaurregi Murgixan**, **Urrutxu Garagaltzan**, **Belaskua** Zañartun eta **Arillalde** nahiz **Baltzola** Urruxolan.

Solanotarrak urte askuan etorri ziran Oñatira, udapartian, lehen esan dogun lez. Ezagunak ziran herrixan eta hartu-emunak izan zittuain oñatiarrekin, euren maillakuekin gehixen bat. Hemen eukain ondasunen administraziño-lanetan hiru herrittarrek, gutxienez, jardun euen: **Damian Arana**, **Zipriano Zufiria** eta **Senen Arzuagak**, azkenengo honek batez be. Markesa bere emaztia baiño lehenago hil zan eta urte batzuetan alargunak, Maria Teresak, etorten jarraitu eben; hori dala-eta esaten xakon, akaso, **markesiaren etxia** eta ez **markesarena** gure garaixan. Baiña gerra ostian alkilau be egin euen eta hor bizi izan ziran, Santa Marinako Barueneko etxetik aldatuta, **Dolores** eta **Asunción Pidal** ahizpak. Honeik hil ziranian, **Julian Etxeberria** oñatiarra etorri zan familixiarekin Donostiatic etxe honetara 1960ko hamarkadako uda batzuetan.



Dana dala, Solanotarren illobak saldu egin euen Marqués de Socorro-ren etxiori eta, aldeko Nemesia Murgiondorenaekin batera bota ondoren, bizitzapillatxua eraiki zan orube horretan 1967-1968 aldera, gaur egun Kale Zaharreko 38. zenbakixa dakon etxian; garbixago esateko, beheko partian **Lete** elektrizidade-dendia eta goratxuago **Spar** puntura arte eta orain **txinatarren bazarra** dagozen lekuan. Begiratu, bestalde, hurrengo etxietan be aldakuntzak izan zirala: **Otalorarena** zihero ordezkatu zan eta **Gerraneko** aurrekaldetik goiko miradoria falta da.

J. E.

Fotografixia Indalezio Ojanguren argazkilari eibartar ospetsuak ataratakua da eta hirurogei urtetik gora edukiko dittu seguruenik. Gipuzkuako Foru Aldundiaren argazki-fonduan topau leike interneten. Argibidiak Asun Arzuaga, Xabier Zelaia, Maria Asun Arregi eta Gonzalo Duori zor dostegu. Milla esker danoiti!